

Sarrera:

Azken urteetan konturatu gara ikasle askok zailtasun handiak dituztela hainbat gai ikasterakoan. Irtenbide gisa, ikasle hauetako askok akademia batera joatea erabakitzen dute, gai horiek hobeto ulertzeko asmoarekin. Hala ere, gure ikuspuntutik akademiek badituzte desabantaila nabarmen batzuk ikasleei laguntzarik aproposena ematea ekiditzen dietenak. Esate baterako, akademian jende asko egotearen ondorioz, irakaskuntza ez da guztiz ikasleen beharretara egokitzen. Gainera, batzuetan, akademian ez da ikastolan erakusten den modu berderan erakusten. Momentu horretan sortzen da gure ideia.

Aurreko guztia ikusita, beharrezkoa ikusi dugu aplikazio bat sortzea, "Teaching" hain zuzen ere, akademien gabeziak konpontzeko eta ikasleei ahalik eta laguntzarik aproposena emateko, eta, zein hobe ikasleei laguntzeko beste ikasle bat baino?

